

METEOROLOGIA-FENOMENO EZEGOKIAK IRAGARTZEKO ETA SEGIMENDUA EGITEKO PROTOKOLOA

KONTUAN HARTU BEHARREKO FENOMENOAK

Metereologia-fenomeno ezegokiak gertatzen dira erregistratutako edo aurreikusitako egoeren parametro hauekin lotutako atalase batzuk gainditzen direnean:

- a) Euriak.
- b) Elurteak.
- c) Haizeak.
- d) Tenperaturak:
 - d1) Izozteak / Temperatura oso-oso bazuak
 - d2) Beroaldiak.
 - d) Temperatura oso-oso altuak.
- e) Itsasbazterreko arriskua.
- f) Ezohiko egoeretarako metereologia-laguntza.

Atalase-balioak, abisu-mailak eta zonakatzea.

Egoera ezegokietan, oinarrizko lau maila aurreikusten dira.

Eskema ideal batean, ezegokitasun-mailek egoerekin dute zerikusia, eta behin gainditutakoan, honako hauek eragin ditzakete:

- Eragozpen edo kalte arinak (maila horia),
- Kalte moderatu eta/edo lokalizatuak (maila laranja) eta
- Kalte larriak eta/edo orokorrak (maila gorria).

Mailen izenak eta esanahiak honako hauek dira:

MAILA BERDEA

Ez dago meteorologia-arriskurik.

MAILA HORIA

Ez dago herritar guztientzako metereologia-arriskurik, nahiz eta jardueraren baterako bai (metereologia-fenomeno ohikoak baina arriskutsuak izan daitezkeenak).

Urtero-urtero hainbat aldiz gerta daiteke.

MAILA LARANJA

Metereologia-arrisku handi samarra dago.

Maila laranjako egoera hauek oso gutxitan gertatzen dira urtean zehar; normalean behin. Kalteak, bereziki sektore batzuetakoak, handiak izaten hasten dira eta pertsonen osotasun fisikoa arriskuan egoten da.

MAILA GORRIA

Meteorologia-arriskua muturrekoa izaten da (meteorologia-fenomeno ezohikoak eta bereziki bortitzak).

Egoera hauek hainbat urtean behin gertatzen dira eta arrisku handia izaten dira herritarrentzat. Kalte materialak oso handiak izaten dira, edo herritarren zati baten osotasun fisikoa arriskuan egoten da.

EURIAREN ATALASE-BALIOAK

Honako atalase hauek hartzen dira kontuan:

Zona	mota	Prezipitazioa 24 orduan (l/m ²)			Prezipitazioa 1 orduan (l/m ²)		
	Maila	horia	laranja	gorria	horia	laranja	gorria
Euskal Autonomia Elkartea		60 – 80)	[80 – 120)	[≥120	[15 – 30)	[30 – 60)	≥60

Lehenbiziko blokea (24 ordu) prezipitazio iraunkor eta normalean hedatuei dagokie, ibai nagusiek uholdeak eragiten dituzten lekuetakoa da. Kasu batzuetan, bereziki arroetan, Zadorrakoan edo Butroikoan, esate baterako, edo lurzoruan edo urtegiatan ur asko pilatzen den garaietan, euriak eragindako egoera ezegokien abisuak balio-muga estuagoekin bidali ahal izango dira, arriskuagatik hala komeni bada. Nolanahi ere, behar bezala azalduko da hori abisuaren oharren artean.

Bigarren blokea (ordu 1), prezipitazio bortitzei buruzkoa da, eta normalean ez dira oso iraunkorrak izaten. Euri mota horien artean bada bat, oso gutxi irauten duten ekaitzak (normalean ez dira 20 minututara iristen) eta hedadura txikikoak, baina beren bortiztasuna dela eta (≥15 l/m² 10 minutuan), hirietan, industria-poligonoetan eta errepideetan arazoak eragiten dituzte; horrelakoetan, herritarrei ezin zaienez abisatu, beste abisu-sistema batzuk erabili behar dira, etorkizunean garatu beharrekoak.

Zonakatzea: Abisuetan, eskualdeei, lurralde historikoei, ibai-arroei, isurialdeei edo eragina lehen-lehenik jasango duten zonei buruzko lurralde-informazioa emango da.

ELURRAREN ATALASE-BALIOAK

Hiru zonakatze ezarri dira; lehena 700 metrotik gorakoa eta 1.000 metroko garaieratik beherakoa; bigarrena, 300 metrotik gorakoa eta 700 metrotik beherakoa, eta, hirugarrena, 300 metrotik beherakoa. Lehenbiziko zonakatzeak Arabako mendialdeko errepide guztiei eragiten die. Bigarrenak Araba osoari eragiten dio, bai eta Bizkaiko eta Gipuzkoako barnealdeari ere, eta hirugarrenak kostatik gertuen diren gunetan ere eragiten ditu arazoak.

Kontuan hartu behar da metro karratuko litro bat (l/m^2) euri, zentimetro bat arteko elur zapaldugabea izaten dela.

Garaierak	Horia	Laranja	Gorria
0-300	Lurrean jalkitako elur-malutak, l/m^2 arte	(1-5) l/m^2 arte	≥ 5 l/m^2 arte
300-700	Lurrean jalkitako elur-malutak, 1 l/m^2 -tik gora	(5-20) l/m^2 -tik gora	≥ 20 l/m^2 -tik gora
700-1000	Lurrean jalkitako elur-malutak, 1 l/m^2 -tik gora	(10-30) l/m^2 -tik gora	≥ 30 l/m^2 -tik gora

HAIZETEAREN ATALASE-BALIOAK

Atalase-balioek **haize-boladaren puntako balioa** bakarrik adierazi behar dute, eta ez haizearen batez besteko balioa bakarrik.

Bi zona bereiziko dira; batzuk **zona arriskutsuak** izango dira, eta labarrak, itsas muturrak, mendialdeko inguruak...sartuko dira bertan. Besteak **zona ez-arriskutsuak** izango dira, hau da, hiriak eta autonomia-erkidegoko gainerako eremuak.

Zona	mota	Gehienezko haize-boldad (km/h)		
	Maila	horia	laranja	gorria
Zona arriskutsua		(100– 120)	(120– 140)	≥ 140
Zona ez-arriskutsua		(80– 100)	(100– 120)	≥ 120

TENPERATURARI DAGOZKION ATALASE-BALIOAK


Hiru egoera ditugu, hau da, "izozteak/tenperatura oso-oso bazuak", "tenperatura oso-oso altuak" eta "tenperatura altu iraunkorrak".





Muturreko tenperaturen peko eremuak

Lau zona homogeneo "ezarri dira tenperaturak eragindako ezegokitasun-atalase guztietarako":

- o Itsasaldeko zona (itsasotik oso gertu dagoena)
- o Kantaurialdeko barneko zona (Kantaurialdeko gainerako zatia, Bilbo barne)
- o Iragate-zona (Arabako lautada eta inguruak)
- o Ebroko ardatzaren zona (Arabako Errioxa, Zanbrana eta inguruak).

Ikusi ondoko mapa hau.



Zona 1		Kostaldea / Zona costera
Zona 2		Kantauri zonaldeko barnealdea / Zona cantábrica interior
Zona 3		Iragate-zona / Zona de transición
Zona 4		Ebro ondoko eskualdea / Zona del eje del Ebro

Izozteak / Temperatura oso-oso bazuak:

Zona bakoitzean egoera bakoitza mugatzen duten atalase-balioak dira:

Zona	Atalase-balioak, gradu-zentigradutan		
	horia	laranja	gorria
Itsasaldeko zona	≤ 0	≤ -2	≤ -4
Kantaurialdeko barneko zona	≤ 0	≤ -4	≤ -7
Iragate-zona	≤ 0	≤ -6	≤ -10
Ebroko ardatza	≤ 0	≤ -5	≤ -8

Temperatura oso-oso altuak:

Zona	Atalase-balioak, gradu-zentigradutan		
	horia	laranja	gorria
Itsasaldeko zona	≥ 33	≥ 35	≥ 37
Kantaurialdeko barneko zona	≥ 36	≥ 38	≥ 40
Iragate-zona	≥ 35	≥ 37	≥ 39
Ebroko ardatza	≥ 36	≥ 38	≥ 40

Temperatura altu iraunkorrak:

Gunea	Ezarritako atalase-balioak gainditzen dituzten ondoko egunak		
	HORIA	LARANJA	GORRIA:
Itsasaldeko zona (T. apalena ≥19 y T. altuena ≥30)	Egun 1 edo 2	3 edo 4 egun	5 egun edo gehiago
Kantaurialdeko barneko zona (T. apalena ≥17 y T. altuena ≥35)	Egun 1 edo 2	3 edo 4 egun	5 egun edo gehiago
Iragate-zona (T. apalena ≥17 y T. altuena ≥35)	Egun 1 edo 2	3 edo 4 egun	5 egun edo gehiago

Ebroko ardatza (T. apalena ≥ 18 y T. altuena ≥ 36)	Egun 1 edo 2	3 edo 4 egun	5 egun edo gehiago
--	--------------	--------------	-----------------------

ITSAS ETA ITSASBAZTERREKO EZEGOKITASUN-EGOEREN ATALASE-BALIOAK

Bi aukera daude, bata ekaitzetarako eta bestea enbatetarako.

Ekaitzak

Atalase-balioak* egoera honetan dira:

Horia.	Laranja	Gorria.
Itsaso zakarra edo kontuan hartzeko moduko olatua 5 eta 3,5 metro artekoa itsas bazterrean.	Itsaso oso zakarra edo kontuan hartzeko moduko olatua 5 eta 7 metro artekoa itsas bazterrean.	Itsaso handia edo kontuan hartzeko moduko olatua 7 metrotik gorakoa itsas bazterrean.

Itsasturi ez profesional asko izaten den garaietan edo egoeretan edo hondartzetan jende asko izaten den garaietan edo egoeretan, batez ere udan, kontuan hartzeko moduko olatuen atalase-balioak metro eta erdi murriztuko dira (5,5, metro, 3,5 metro eta 2 metro)

Enbatak edo antzekoak:

Galernatzat jotzen dira haizearen abiadura- eta norabide-aldaketa zakarrak, itsasbazterreko itsasturiei eta hondartzen erabiltzaileei arazo larriak eragin ahal dizkietenak. Normalean, fenomeno-mota hauek arriskutsuagoak dira udaberrian udan baino. Abisua emango da fenomeno horiek gertatzen direnean edo berriz gertatzeko aukera dagoenean, eta probabilitate-maila ere adieraziko da. Ekaitz batzuek, bat-bateko haize-kirriek eta fronteez galernen antzeko ondorioak izan ditzakete hondartzen erabiltzaileentzat eta itsasturientzat, eta, beraz, kontzeptu honen barruan sartuko ditugu.

MAILA	EZAUGARRIAK
HORIA	Itsasoan: haizea zakar aldatuko da, gehienbat iparmendebalderantz biratuz, 6ko indarrarekin.
	Lehorrean: Haizea zakar aldatuko da, gehienbat iparmendebalderantz biratuz; boladaka zakar joko du, eta itsasbazterrean 60 km/h baino abiadura handiagoa hartuko du.
LARANJA	Itsasoan: haizea zakar biratuko da, gehienbat iparmendebalderantz, 7ko indarrarekin.
	Lehorrean: haizea zakar biratuko da, gehienbat iparmendebalderantz, eta boladaka oso zakar joko du, itsasbazterrean 90 km/h baino abiadura handiagoarekin.
GORRIA	Itsasoan: haizea zakar biratuko da, gehienbat ipar mendebalderantz, 8ko indarrarekin.

Lehorrean: Haizea zakar biratuko da, gehienbat ipar-mendebalderantz; urakan-haizea izango da boladaka, 120 km/h baino abiadura handiagoarekin itsasbazterrean.